



**Kanpezu
Campezo**

UDALA · AYUNTAMIENTO

2026. URTEKO KULTURA, EUSKARA ETA KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA

1. artikulua. Dirulaguntzaren xedea

Deialdi hauetan arautzen diren dirulaguntzen helburua honako proiektu eta jardura hauek finantzatzea da, bai eta herritarrei eta erakundeei berdintasunaren, gardentasunaren, lehiaren, objektibotasunaren, emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bermatzeko helburuak eta irizpideak finkatzea ere, udalaren esku-hartzea osatze aldera, oinarri arautzaileetan ezarritako terminoetan.

Kulturaren arloan:

- 1) Adinekoentzat: prestakuntza artistikoa eta iraunkorra, aisialdiko eta denbora libreko jarduerak, bidaiak eta txangoak, etab.
- 2) Hezkuntzakoak, aisialdikoak eta denbora librekoak, haur eta/edo gazteentzat.
- 3) Kultura-ekimen, -jardura eta -programetarako eta arte-prestakuntzarako dirulaguntzak.
- 4) Arte-talde amateurrentzako materiala erosteko laguntzak: material instrumentala, partiturak, antzerki-materiala/jantziak, etab.
- 5) Ikuskizunak antolatzeke eta garatzeko dirulaguntzak.
- 6) Kultura-bisitak egiteko laguntzak.
- 7) Berrien idatzizko edo formatu digitaleko edizioak sustatzeko eta garatzeko laguntzak.
- 8) Begiraleak eta animatzaileak prestatzeko programetan parte hartzeko bekak edo laguntzak: haurrak, gazteak, hirugarren adinekoak, etab.

Euskararen arloan:

1. Euskara ikasteko bekak.
2. Tokiz gaindiko proiektuak finantzatzea.

Kirolaren arloan:



**Kanpezu
Campezo**

UDALA · AYUNTAMIENTO

1. Kirol-jardueren programetarako laguntzak.
2. Kirol-ekitaldiak antolatzeko eta garatzeko laguntzak.
3. Oinarrizko kirola sustatzeko laguntzak.
4. Goi-mailako kirolarientzako laguntzak.

Jarduerak batera finantzatzeko laguntzak dirulaguntza gisa emango dira, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren eta Kanpezuko Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoaren mende egongo dira.

2. artikulua. Onuradunak

Pertsona fisikoak edo juridikoak izango dira onuradunak, baldin eta dirulaguntza ematea zilegi egiten duen egoeran badaude edo oinarri arautzaile hauetan eta deialdian aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Dirulaguntza eskatu ahal izango dute eskabidea egiten den egunean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 11. eta 13. artikuluetan eta Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko 11/2016 Foru Arauaren 5. artikuluan aurreikusitako baldintzez gain, honako hauek betetzen dituzten erakundeek eta/edo pertsonak:

- Pertsona juridikoak badira, legez eratuta egon beharko dute.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

Ez dira onuraduntzat joko:

- Laguntza-ildo bereko aurreko deialdietan emandako dirulaguntzetatik eratorritako betebeharrak guztiak bete ez dituzten erakundeak edo pertsonak.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluaren aipatzen diren arau-hausteengatik zigortuak izan diren erakundeak edo pertsonak, bai eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko, martxoaren 16ko 1/2023 Legearen testu bategina eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege



**Kanpezu
Campezo**

UDALA · AYUNTAMIENTO

Organikoan jasotako kasuetan ere.

Kulturaren arloan:

Aurreko puntuan deskribatutako jarduera sustatzen edo egiten duen pertsona fisiko edo juridiko oro.

Oinarrien lehenengo artikuluko 1.etik 6.era bitarteko puntuetan adierazitako jardueretarako, udalerrian kokatutako elkarteak edo kolektiboak izango dira onuradun, baldin eta Kanpezun egiten badira jarduerak, bisita kulturalak eta txangoak izan ezik.

Oinarrien lehenengo artikuluko 7. eta 8. puntuetan ezarritakoari dagokionez, onuradunak udalerri horretan erroldatutako bizilagunak izango dira, edo ez dira izango udal interesekotzat jotzen diren lanak edo, osorik edo zati batean, nagusiki udalerri horretan kokatutako pertsonen, ondasunen edo interesen buruzkoak.

Euskararen arloan:

Euskara-beketarako: Kanpezun erroldatuta dauden interesdun guztiak (ikasturtea hasi baino urtebete lehenago eta ikastaroak irauten duen bitartean), 16 urtetik gorakoak. Pertsona bakoitzak egiten dituen ikastaro eta barnetegiak adina beka eska ditzake (urria-otsaila, otsaila-ekaina, urria-ekaina, uda, uztaila edo iraila eta barnetegiak), aurreko urteko irailetik aurtengo abuztura bitartean.

Barneratuen kasuan, prestakuntza-kostuak baino ez dira finantzatzeko, eta ostatu- eta mantenu-kostuak eskatzailearen kontura geratzeko dira.

Tokiz gaindiko proiektuei dagokienez: Udalerrian euskara sustatzeko eta erabiltzeko jarduerak garatzea helburu duten elkarteak, Kanpezun egiten direnak eta, batez ere, udalerriko biztanleei zuzenduak.

Kirolaren arloan:

Aurreko puntuan deskribatutako jarduera sustatzen edo egiten duen pertsona fisiko edo juridiko oro izango da onuraduna.



**Kanpezu
Campezo**

UDALA · AYUNTAMIENTO

Udalerriko elkarteak edo taldeak izango dira onuradunak, baldin eta 1. artikuluko 1., 2. eta 3. puntuetan aipatzen diren jarduerak Kanpezuko udalerrian egiten badituzte.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginamartxoaren 16ko 1/2023 Legearen Testu Bategina betez, sexuagatik zuzenean edo zeharka diskriminatzen diren jarduerak ez dira inola ere diruz lagunduko.

Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, erlijio, jatorri etniko, kultural edo sozialagatik edo beste edozein arrazoiengatik zuzenean edo zeharka diskriminatzen dituzten jarduerak.

3. artikulua. Oinarri arautzaileak

2025eko martxoaren 18ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez onartuak eta 2025eko ekainaren 4ko ALHAOn (62. zk.) argitaratuak. Aurrekontu-zuzkidura 2026rako aurrekontu orokorra behin betiko onartzean zehaztu zen (2026ko otsailaren 2ko ALHAO, 14. zk.).

4. artikulua. Eskerak aurkezteko epea eta tokia

Eskabidea, eredu ofizialaren arabera (I. eranskina), Udaleko Alkatetzari zuzendua, Udaleko udaleko sede elektronikoa bitartez aurkeztuko da, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako edozein bitartekoren bidez, HOGEITA HAMAR lan-eguneko epean, deialdiaren iragarkia ALHAOan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Eskararekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a.-Kulturaren arloan:

a.1.-Jardueretarako: Jardueraren edo programaren proiektua, II. eranskineko ereduaren arabera.

a-2-Beketarako:

* Prestakuntza-programa.



**Kanpezu
Campezo**

UDALA · AYUNTAMIENTO

* Matrikulazioa jasotzen duen ikastetxearen ziurtagiria.

* Matrikula ordaindu izanaren egiaztagiria.

Talde artistiko amateurrentzako materiala erosteko laguntzak: material instrumentala, partiturak, antzerki-materiala/jantziak, etab.: II. eranskineko ereduaren arabera.

b.-Euskararen arloan:

b.1.-Beketarako:

* NANaren fotokopia

* Matrikula ordaindu izanaren banku-erakundearen egiaztagiria.

* Euskaltegiko edo beste erakunde ofizial bateko matrikularen egiaztagiria, euskaltegiak berak emana. Barnetegiaren kasuan, irakaskuntza-gastuak eta mantenu- eta ostatu-gastuak banakatuta egon beharko dira.

* Kanpezuko Udalak antolatutako ikastaroetan, beharrezkoa izango da irakasleak emandako txostena, ehuneko 75eko bertaratzearen justifikazioari buruzkoa.

* Eskolen ehuneko 75erainoko bertaratze-justifikazioa, euskaltegiak edo beste erakunde ofizial batek emandakoa eta/edo bertaratzea justifikatu ezin bada. Justifikazio hori arrazoi handiagoren batengatik gertatu beharko da, eta dagokion dokumentazioarekin justifikatu beharko da, hau da, euskaltegiak edo dagokion erakundeak emandako ikastaroa edo hizkuntza-eskakizuna gaindituta.

b.2.-Tokiz gaindiko proiektuak: II. eranskineko ereduaren arabera.

c.-Kirolaren arloan:

c.1.-Jardueretarako:

Jardueraren edo programaren proiektua, II. eranskineko ereduaren arabera.

c.2.-Goi-mailako kirolarientzat:

* Garatzen dituen jarduketan memoria: II. eranskineko ereduaren arabera.



* Estatuan edo nazioartean lortutako tituluak.

Eskatutako agiriak dagoeneko Udalaren esku badaude, eskatzaileak ez aurkezteko eskubidea baliatu ahal izango du, baldin eta prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira. Horretarako, agiriak noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu edo jaulki ziren adierazi beharko du.

Eskabideak Ordenantza honetan ezarritako baldintza guztiak betetzen ez baditu, organo eskudunak interesdunari eskatuko dio hamar eguneko gehieneko epe luzaezinean zuzen dezala eskaera, eta adieraziko dio hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako baldintzetan emandako ebazpenaren ondoren.

5. artikulua. Zenbatekoa

a.-Kulturaren arloan:

a.1.-Aktibitaterako (oinarrien lehenengo artikulua 1 puntutik 6ra): Dirulaguntza diruz lagun daitekeen aurrekontu totalaren ehuneko 50rarte heldu ahalko da, eta osotara dirulaguntza, gehienez, 500 eurokoa izan ahalko da.

a.2.- Bekentzako (oinarrien lehenengo artikulua 7. eta 8. Puntuak): Dirulaguntza diruz lagun daitekeen aurrekontu totalaren % 30rarte heldu ahalko da, eta osotara dirulaguntza, gehienez, 400 eurokoa izan ahalko da.

b.-Euskararen arloan:

b.1.-Bekentzako: bekaren zenbatekoa gehienez matrikula-kostuaren ehuneko 50 izango da, eta osotara gehienez 200 eurokoa izan ahalko da.

b.2.-Tokiz gaindiko proiektuentzako: diruz lagun daiteke aurrekontuaren ehuneko 50 izango da, eta gehienez 300 eurokoa jarduera guztiengatik.

c.-Kirolaren arloan:



**Kanpezu
Campezo**

UDALA · AYUNTAMIENTO

c.1.-Kirol-jardueren programetarako laguntzak: Diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 70, gehienez, honako kontzeptu hauengatik: federazio-gastuak, arbitrajeak, entrenatzaileak kontratatzea, telefono-, farmazia- eta mediku-azterketak, ekipoetarako ekipazioa erostea eta lekualdaketa- eta desplazamendu-gastuak (erregaia, ibilgailuen alokairuak, etab.). Kontzeptu guzti horiengatik dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 2.500 eurokoa izan ahalko da.

Kanpoan geratzen dira elkarteen barne-funtzionamenduko eta kudeaketako gastuak eta Klub edo Elkarteari ezarritako zigorrek eragindako federazio-gastuak.

c.2.- Kirol-ekitaldiak antolatzeke eta garatzeko laguntzak: aurrekontuaren % 40, gehienez, 600 euro.

c.3.-Oinarrizko kirola sustatzeko laguntzak: 30 euroko ekarpena Kirol Elkartean edo Klubean izena emanda dagoen udalerriko haur bakoitzeko, udalerrian garatzen dituen kirol-jardueretakoren batean parte hartuz. Ez da eskola-kirolaritzat hartuko kadete adina gainditzen duenean. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa aurrekontuaren ehuneko 40 izango da, 600 euro gehienez.

c.4.- Goi-mailako kirolarientzako laguntzak: Diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 70, gehienez ere, honako kontzeptu hauengatik: federazio-gastuak, entrenatzaileak kontratatzea, azterketa medikoak, ekipazioa erostea eta lekualdaketa- eta desplazamendu-gastuak. Kontzeptu horiengatik dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 600 eurokoa izango da.

Dirulaguntzetako batean ere ez dira diruz lagunduko honako hauek: ondasun higigarriak eta higiezinak erosi, konpondu eta zaharberritzeko gastuak; banku-kontuen interes zordunak; interesak, errekareruak eta zehapen administratibo eta penalak; prozedura judizialen gastuak; elkarteen barne-funtzionamenduko eta kudeaketako gastuak, bai eta jardueretan erabiltzen diren ondasun kontsumigarri edo jangarriak ere; jardueren zabalkundeari dagokion publizitatearen gastuak, ezta elkartearen web-orria mantentzeko xedea dutenak ere; eta Udalak eskainitako proiektuen paraleloak, udalaren esku-hartzearen osagarri ez bada.

Eskaera-kopurua eta jaso beharreko zenbatekoak kontuan hartuta, hainbestekoak ehunka kopurutan murriztu beharko balira, aurrekontu-partidara egokitzeke, murrizketa jardueren guztien proportzioan ezarriko litzateke.